01 26

ARTZINIEGAKO ARTEA

Artziniega 1800 biztanleko Arabako udalerri bat da. Bizkaiarekin (iparraldean) eta Burgosekin (mendebaldean) mugatzen du. Ezaguna da, besteak beste, ehun urteko arte bat edukitzeagatik (Querqus ilex ilex) Arteko Andre Mariaren santutegiaren aurrealdean.

Santutegia eta zuhaitza ez daude Atziniegako hirigune nagusian kokatuta, baizik eta “Arteko Auzoan” izenekoan (jakina), hirigune nagusitik 500 metrora bakarrik.

Santutegia 1498. urtekoa da eta aurretik existitzen zen beste baten gainean eraiki zen. Tradizioak dio eraiki egin zela Andre Maria agertu zelako. Estiloa amaierako gotiko artistikoaren eta erdi aroaren artean dagoela, hainbatetan handitu eta eranskinak ipini zaizkio, besteak beste, gaur egungo kanpandorrea (1882).

Artea lorategi batean dago, Santutegiaren sarrerarena urrean, burdin-sare batek inguratuta. “Zuhaitz berezitzat” sailkatuta eta babestuta dago 1995. urtetik. 25 m altuera eta 8 m perimetroa dauka eta 500 urte inguru ditu.



Arteko kokapena, Artziniegako hirigune nagusiarekiko. Ortoargazkia 2015. Fuente: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco.

Hiri ortoargazkia 2007-2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 488968.0624 // Y: 4774972.2894 // Z: 253 m. Artziniegako artea. Artearen ondoan txikiago den beste ale bat dago.





Artea Santutegiko sarreraren aurrean.



Gure Arteko Andra Mariaren Santutegia, absidea, dorea eta ostatu zaharra.